

Kasuak eta preposizioak jabekuntza elebidunean: bi sistema, bi gramatika

(Cases and prepositions in bilingual acquisition: two system, two grammars)

Elosegi Aduriz, Kristina¹

Euskal Herriko Unib.

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila

Oñati Plaza, 3

20018 Donostia

odpeladk@sf.ehu.es

BIBLID [1137 - 4446 (2000), 12; 47-68]

Jaiotzetik euskararekin eta gaztelaniarekin harremanetan egon den haur bati 1;11 adinetik 3;06 adina bitartean hamabostero eginiko bideograbaketetan oinarrituz, euskarazko kasuen eta gaztelaniaz baliokidetzat har daitezkeen preposizio eta izen ordainen jabekuntza-bilakabidea aztertzen da lan honetan. Emaitzek hiru urte eta erdi bete aurretik, euskarak dituen kasu gehienak eta parekotzat har daitezkeen gaztelaniazko preposizio eta izen ordainak, eta hauek betetzen dituzten funtzioak, haurrak adierazi dituela erakusten dute.

Giltz-Hitzak: Izenordain klitikoak. Gramatika-bereizketa. Jabekuntza elebiduna. Kasua. Luzaroko ikerketa. Preposizioa.

A partir de grabaciones de vídeo realizadas cada dos semanas a un niño que ha estado en contacto con las lenguas objeto de este estudio (euskera y castellano) desde su nacimiento, hemos pasado a analizar la adquisición y el desarrollo que los casos en euskera y de los pronombres y preposiciones correspondientes en castellano, desde 1,11 años de edad hasta 3,06. Los resultados muestran que la mayoría de los casos en euskera así como sus correspondientes pronombres y preposiciones en castellano, y las funciones que desempeñan, han aparecido en el habla del niño estudiado antes de la edad de tres años y medio.

Palabra Clave: Adquisición bilingüe. Caso. Pronombre clítico. Separación de gramática. Investigación longitu-dinal. Preposición.

A partir d'enregistrements vidéo, réalisés toutes les deux semaines, d'un enfant qui a été en contact avec les deux langues faisant l'objet de cette étude (euskera et espagnol), nous avons analysé l'acquisition et le développement des cas en euskera et des pronoms et des prépositions correspondantes en espagnol, de 1,11 à 3,06 ans. Les résultats montrent que la plus grande partie des cas en euskera ainsi que ses pronoms et ses prépositions correspondantes en espagnol, et leurs fonctions, est apparue dans la langue de l'enfant qui a étudié avant l'âge de trois ans et demi.

Mots Clés: Acquisition bilingue. Cas. Pronom Clitique. Séparation de grammaires. Recherche longitudinale. Preposition.

¹ Ikerlan hau Espainiako MEC-eko DGICYT erakundeak PB98-0239 proiektuari emandako laguntzari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko ikertzaileak prestatzeko programako laguntzari esker zor diet, neurri baten behintzat.

SARRERA

Haur bat jaiotzetik bi hizkuntzekin harremanetan jartzen dugunean nola ikasten ditu hizkuntza hauek? Bietako bat nagusitzen al da ala hizkuntza biek aukera bera izango dute? Eta bata edo bestea gerta dadin, zein baldintza dira erabakiorrak? Gure inguruan ditugun bi hizkuntzak kontuan izanik, hau da, euskara postposizionala eta gaztelania preposizionala, nola-koa izango da gure haur elebidunen jabekuntza-bilakabidea? Bi hizkuntza hauetako bat errazagoa al da haurarentzat? Ala egitura ezberdinak izan arren, haurarentzat berdinak al dira jabekuntza-bilakabideari dagokionez?

Hemen aurkezten dugun lanean, euskara eta gaztelania aldi berean ikasi dituen haur baten datuetan oinarrituko gara. Aukeratutako hizkuntza-unitateak euskarazko kasuak dira eta parekotzat har daitezkeen gaztelaniazko izenordain eta preposizioak. Aukeraketa honen zergaitia kategorian hauen kokapena guztiz ezberdinean dago, euskarazko kasuak postposizioen bidez gauzatzen baitira eta gaztelaniaz, ostera, preposizioen bidez. Horrela, kontrajarriak diren bi egitura hauen aurrean, hauraren garapen linguistikoa nolakoa den ikustea interesgarria irudituz gaitza.

Arlo honetan eginiko ikerketen ondorioak zenbaitetan kontrakoak dira. Horrela, turkieran oinarrituz, postposizioak preposizioak baino errazagoak direla dio Slobin-ek (1973). Izan ere, perpaus bakunetan, hizkuntza honen sistema inflexionala oso goiztiarra da, haur turkiarrek ez dute ohiko *haur hizkuntza* ezagutzen ezta *aro telegrafikoa* deritzana ere. Haurren ekoizpenak motzak eta sinpleak dira, baina helduen ikuspegitik, ekoizpen ez-gramatikalak edo osatugabeak ia inoiz ez, hau da, ez dute errakuntzarik egiten. Hau guztia turkiera oso erregularra delako gertatzen omen da, eta morfologiaren jabekuntza goiztiarra adieraziko luketen hamabi faktore aipatzen dira (Aksu-Koç eta Slobin, 1985). Horrela, hizkuntza honetako morfema bakoitzak aipatu hamabi ezaugarri ditu. Ezaugarri hauetako bat morfemak atzizkiak izatea da. Baina beste hamaika ezaugarri dituzte turkierako morfemak, eta ikertzaileek aitortzen dutenez, faktore guztiak dira jabekuntza errazten dutenak. Hortaz, morfemak atzizkiak izatea, errazteko faktoreetako bat litzateke.

Slobin-ek (1973) aipatutako hipotesiaren aurkako lanak ere aurkitu ditugu ordea, hala nola, Johnston-ek eta Slobin-ek berak (1979) esapide lokatiboen hizkuntzarteko ikerketa batean (ingelesa, italiara, serbo-kroaziera eta turkiera) azaldu zuten bezala. Lau hizkuntza hauetatik, hiru indoeuroparrak dira eta, gainera, preposizionalak; turkiera, ostera, ez-indoeuroparra eta postposizionala. Hortaz, eta gorago aipatu dugun printzipioari jarraituz (Slobin, 1973), turkierak alde izango luke alor honetan. Ikerketa honetan, lokatiboen jabekuntzaren azterketan erabili ziren hizkuntzen arteko ezberdintasunak nabariak diren arren (dibertsitate lexikala, argitasun etimologikoa, konplexotasun morfologikoa, homonimitatea, etab.), eta jabekuntza-ordena zehatza hizkuntza bakoitzaren arabera gertatu arren, ordena orokor bat ikusi zen hizkuntza guztietan zehar. Gainera, erlazio lokatiboak haur italiarrek eta turkiarrek, ingelesek eta serbo-kroaziarrek baino azkarrago ikasten dituztela ikusirik, postposizioak preposizioak baino lehenago ikasten direla dioen printzipioak (Slobin, 1973) ez dirudi garrantzi handia duenik, kontuan izanik italiarrek erlazio lokatiboak preposizioen bidez antolatzen dituela.

Slobin-en hipotesiaren aurka azaltzen den beste ikerketa bat Dromi-k (1979) hebraierazko lekuzko erlazioei buruz egindakoa da. Hizkuntza honetan, erlazio hauek, gehienetan preposizioen bidez adierazten baitira, nahiz eta forma ezberdinak eduki: aurrizkiak, hitz preposizionalak eta forma fusionatuak. Ikerketan adierazten denez, hebraieraren datuak ez datoz bat Johnston & Slobin-en (1979) datuekin, hebraieraz lehen ikasten diren bi preposizioak, formari dagokionez, aurrizki enklitikoak baitira.

Horrela bada, hizkuntza ezberdinetan oinarritutako ikerketen bidez ikusi ahal izan dugu ez dagoela irizpide erabakigarri bakar bat, hizkuntzaren jabekuntza-garapenaren edozein atal, eta konkretuki kasu-marka eta preposizioei dagokiena lortu ahal izateko. Batzuentzat atzizkiak dira haurrentzat erakargarriak, besteentzat berriz aurrizkiak, preposizioak ere erabakigarriak direlarik. Hau dena ikusirik, gure ustez faktoreen arteko eraginen bidez lortzen da hizkuntzaren jabekuntza-garapena, eta gure lanerako aukeratu ditugun bi hizkuntzak kontuan hartuz, ez dugu uste ezberdintasun nabaririk aurkituko dugunik bien arteko jabekuntza-garapenean.

Hitzaldi hauen hasieran azaltzen den legez, eztabaida ugari sortu izan da, bestalde, bi hizkuntza batera ikasten dituen haurrak jasaten dituen zailtasunak edo abantailak direla eta.

1. HELBURUAK

Oinarrizko bi helburu ditugu lan honekin:

1. Euskarazko kasu eta gaztelaniazko izenordain, preposizioen eta beraien bidez gauzaten diren funtzio eta erlazioen azterketa, haurrak noiz eta nola ikasten dituen ikusi ahal izateko.

2. Jabekuntza-bilakabidean, euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketarik ageri den, edo haurrak bi hizkuntzak bereizten dituen aztertu.

2. CORPUSA ETA METODOLOGIA

Aipatu azterketak egin ahal izateko, euskara eta gaztelania aldi berean ikasi dituen Peru haurraren datuetan oinarritu gara, 1;11 adinetik 3;06 adina bitartean hamabostero bi hizkuntzetan eginiko bidegrabaketen bitartez lortutako corpusean.

Lortutako corpusetik azterketarako aukeratutako hizkuntza-unitateak, bestalde, euskarazko kasuak, hau da, aditzarekin komuntzadura dutenak eta hauen bidez gauzatzen diren subjektu eta objektuak, eta aditzarekin komuntzadurarik ez dutenak dira. Parekotzat har daitezkeen gaztelaniazko subjektu eta objektuak, izenordain pertsonalak (tonikoak zein atono edo klitikoak) barne direlarik, eta preposizioak ere aztertuko ditugu.

3. AZTERTUTAKO UNITATE LINGUISTIKOEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA

Izen-sintagmak gramatika edo leku-denborazko funtzioak adierazteko atzizki batzuk hartzen ditu. Kasu-inflexioa, euskaraz, izen, izenordain, adjektibo eta adberbio sintagma batzuetan azaltzen da.

Euskaraz, ez dira hitzak deklinatzen, izen-sintagma osoa da deklinatzen dena. Bestalde, izen-sintagmaren ardatza izena delarik ere, hondarkia ez zaio nahitaez izenari ezartzen, izen-sintagma ixten duen elementuari baizik (1-2).

(1) Lagun min-ak eman zidan

(2) *Lagun-ak min-ak eman zidan

Indoeuropar hizkuntzetan aditz guztien subjektuak nominatibo kasuan azaltzen dira beti. Euskara bezala ergatiboak diren hizkuntzetan (euskara morfologikoki ergatibotzat hartzen da), aldiz, subjektua absolutibo edo ergatibo kasuan azal daiteke.

Euskarak hamabost kasu ditu. Hauetako hiruk aditzarekin komuntzadura erakusten dute:

- Absolutiboa edo NOR kasua: Kasu honek ez du ageriko atzizkirik. Funtzio ezberdinak betetzen ditu: perpaus iragangaitzen subjektua, perpaus iragankorren objektua eta perpaus kopulatiboen predikatua (3-5).

- (3) ume-a-Ø iritsi da
- (4) seme-a-k ogi-a-Ø erosi du
- (5) mendi-Ø hori ederra da

Absolutibo kasuaren aldaera bat partitibo kasua da. Dagokion morfema berriz, *-ik* da. Ezezko eta galderazko perpausetan agertzen zaigu, batik bat.

- Ergatiboa edo NORK kasua: Kasu honi dagokion morfema *-k* atzizkia da eta betetzen duen funtzioa subjektuarena da. Kasu hau perpaus iragankorretan azaltzen da, gehienetan bi izen-sintagmekin: absolutiboa eta ergatiboa (4).

- Datiboa edo NORI kasua: *-(r)i* atzizkia da kasu honi dagokion morfema eta zeharkako objektuaren funtzioa betetzen du (6).

- (6) lagun-a-ri ekarri diot

Gaztelaniak, bestalde, antzinako latindar deklinabidearen aztarnak gordetzen ditu. Ize-nordain pertsonal toniko eta atono edo klitikoaren forma ezberdin batzuk bakarrik irauten dute funtzio sintaktiko ezberdinak adierazteko: subjektua, objektu zuzena eta zehar objektua (7-9).

- (7) yo sé
- (8) te cuento
- (9) damelo

Euskarak, aditzarekin komunztadura duten aipatu hiru kasuez gain, aditzarekin komunztadurarik erakusten ez duten kasuak ere baditu (1. taula).

1. taula: aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuak

<i>kasua</i>		<i>atzizkia</i>	<i>adibidea</i>
jabego genitiboa	NOREN	-en	aitaren etxea da
leku genitiboa	NONGO	-ko	etxeko giroa ona da
inesiboa	NON	-n	umeak ikastolan daude
adlatiboa	NORA	-ra	Bilbora goaz
hurbiltze adlatiboa	NORANTZ	-rantz	Baionarantz doaz
muga adlatiboa	NORAINO	-raino	ikastolaraino iriti dira
ablatiboa	NONDIK	-tik	etxetik ikusi du mendia
soziatiboa	NOREKIN	-ekin	norekin etorri da haurra?
instrumentala	ZEREZ	-z	mailuaz baliatu zen
motibatiboa	ZERGATIK	-gatik	horregatik egin zuen
destinatiboa	NORENTZAT	-entzat	Mirenentzat ekarri du

Orain arte aipatu ditugun hizkuntza-unitateetan eta gaztelaniazko preposizioetan oinarrituko dira ondoren azaltzen ditugun datuak.

4. EMAITZAK

Atal honetan hizkuntza bakoitzeko emaitzak bereziko ditugu, hau da, lehen euskarari dagozkionak aipatuko ditugu, eta ondoren gaztelaniazkoak.

4.1. Euskarari dagozkion emaitzak

Absolutiboa edo NOR kasua (Ø)

Horago aipatu dugun bezala, kasu honek ez darama ageriko morfemarik. Nola ikusi orduan kasu honen azalpena haurraren? Alde batetik haur honengan izen-sintagmaren jabekuntza-bilakabidea aztertu dugu. Haurra izen-sintagma determinatzeko gai denean, kasu honen azalpenaren froga baten aurrean gaude, gure ustez. Bestalde, kasu honen ekoizpena, kontraste bidez ere ikus daiteke, hau da, haurra beste kasu bat ekoizteko gai bada, esan daiteke absolutibo kasua bereizten duela.

Haurraren corpuseko datuetan ikus daitekeen moduan, 1;11-2;02 adinen artean, mota honetako ekoizpenak aurkitzen ditugu (10-13).

(10) papea, g(r)ua (1;11)

(11) t(r)ena, ho(r)i txi(ki)a, hemen lua (=grua) (2;01)

(12) tutu, wau-wau (=txakurra), hau uri (=Jurgi) (1;11)

(13) pipipi (=kotxe), bugi (=jostailu bat) (2;01)

Bi multzo egin daitezke garai honetako ekoizpenekin. Multzo batean euskal hitz arruntak ditugu, artikulua itsatsirik dutelarik. Bigarren multzoan, ez dugu artikulurik ikusten. Hitz hauek ordea, edo haur hitzak dira, edo hitz bereziak. Esan daiteke, hortaz, haur honen lehen ekoizpenak euskal deklinabidearen erregela betetzen dutela. Hau bera ikusi dute Idiazabalek (1991), Barreñak (1997) eta Zubirik (1997).

Hemendik aurrera determinazioaren lehen urratsak ikusten hasten gara haur honengan. Horrela, 2;02 adinean -a mugatzailea elementu formal gisa erabiltzen hasten da haurra, ondorengo kontrastean ikus daitekeen bezala (14).

(14) ves! autoa (2;02); ni auto punba (auto txokea) (2;02)

Determinatzaile bakarraren erregela betetzeko ere gai dela erakusten du (15-16).

(15) azal ha(u) gorria (da)(2;02)

(16) hau, tutu (=kotxe) handi handia; nire tutua (2;03); etxe bat (2;04)

Beranduago ikusiko dugun bezala, inesibo edo NON kasua da lehen agertzen dena, eta hau haurrak 2;02ko adina duenean gertatzen da (17).

(17) g(r)ua (gar)ajea; hau ajaian (garajea) (2;02)

Datu hauek aurrean ditugularik, absolutibo kasuaren azalpena adieraziko dugu jarraian, oraingoan aditz jokatua azaltzen den ekoizpenetan (2. taula).

2. taula : absolutiboak

adina	erak.	subjektuak				objektu zuzenak				
		izen.	izena	izen prop.	bi osagai	erak.	izena	izen prop.	bi osagai	beste osagai
2;02;25	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
2;03;12	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;03;25	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;04;15	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
2;05;00	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;05;12	2	-	-	-	-	2	-	-	-	-
2;05;26	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
2;07;09	1	-	3(1)	1	-	1	2	-	2	-
2;07;30	-	-	10	-	-	1	1	-	-	-
2;09;05	-	-	-	-	2	-	6	1	-	-
2;09;22	1		2	-	-	4	7 (1)	-	-	1
2;10;11	1	2 (1)	4	-	-	5	13(5)	-	2	-
2;10;22	-	1	3	-	-	-	3	-	4	1
2;11;25	-	-	3	2	1	1	4 (1)	-	4	-
3;00;17	2	-	-	-	-	3	3	-	1	-
3;01;24	-	1	2	-	-	1	2 (2)	-	1	-
3;02;14	-	-	2	-	-	2	4 (1)	-	8	1
3;03;07	1	-	1	-	-	-	1	-	4	1
3;04;04	-	-	2(1)	-	-	-	2	-	4	-
3;05;09	1	2	1	1	1	2	3 (3)	-	6	1
3;06;17	-	1	2	1	-	1	4	-	7	-
	9	8	37	6	4	23	55	1	43	5
	% 14	% 13	% 58	% 9	% 6	% 18	% 43	% 1	% 34	% 4

Aztertutako haurrak lehen ekoizten duen absolutiboa, subjektu funtzioan azaltzen da, 2;02 adinean (18). Ondorengo ekoizpenek ere funtzio bera betetzen dute (19). Lehen absolutiboa objektu funtzioan beranduago azaltzen da, 2;05 adinean (2.taula) (20).

(18) heme(n) eto (=ez dago) kokea (=traktorea) (2;02)

(19) hau da tutua (2;03); hemen dato (=dago) p(r)oblema (2;04); hau doa (2;05) ni naiz okina (2;10); limioia oso oso samina da (3;04)

- (20) hori eztauka haundia? (2;05); konponduko dut nire kokiki (=santxeski) (2;07)

Aztertutako haurra gai da 2;05 adinerako absolutibo kasua erabiltzeko, subjektu zein objektu funtzioan.

Ezezko eta galderazko perpausetan agertzen den partitiboa, Barreñak (1993) eta Zubirik (1997) aztertutako haurrengan gertatzen den bezala, gure haurrengan ere, absolutiboa baino beranduago azaltzeaz gain, azalpena urriagoa du (21).

- (21) ez, Miguel Marik erdaka (=ez dauka) belarrak (3;03); baña elaka (=ez dauka) palalik (=palarik) (3;04)

Absolutibo kasuaren bilakabidea laburbilduz, izen-sintagmaren determinazioaren jabe-kuntza, 2;02ko adinetik aurrera kokatu dugu. Absolutibo kasuaren agerpena, betetzen dituen bi funtzioen arabera, 2;02 adinetik 2;05 adina bitartean. Horrela bada, 2;02 adinean kokatuko dugu kasu honen lehen azalpena, kontuan izanik adin horretarako determinazio bakarraren arauaz ohartu dela haurra eta subjektu funtzioa ere erabili duela, eta gorago aipatu dugun inesibo kasuaren lehen ekoizpenak ere garai horretakoak direla.

Ergatiboa edo NORK kasua (-k)

Ergatiboaren lehen morfema azaldu aurretik, kasu honen beharra duten zenbait ekoizpen aurkitu dugu. Kontuan edukiz haur honen corpusaren lehen datuak 1;11 adinekoak direla, hasiera batean mota honetako ekoizpen gehienak hitz bakar batez edo bi hitzez osatutakoak dira eta erreferentea bere burua edo ingurukoren bat izaten da.

Ondoren, eta kasu honi dagokion marka azaldu aurretik, bi argumentudun (NOR-NORK) aditzetan subjektuarekiko lehen eta hirugarren pertsona singularren komunztadura azaltzen da, horrela, ergatibotasuna adieraziz (22).

- (22) lalut (=nahi dut) be bota; Peu (=Peruk) azin (=ezin) du; bota lu (=du) (2;04)

Ergatiboari dagokion lehen marka, 2;05 adinean azaltzen da aztertzen ari garen haurrengan (3. taula). Alde batetik aditzik gabeko ekoizpenak aurkitzen ditugu (23). Hemendik aurrera subjektu ergatiboak azaltzen dira, aditz jokatua duten ekoizpenetan (24).

- (23) totokak? (=dortokak); hori Begok; hau Piuk (=Peruk) kottote (=kotxe) ha(u)ndia (2;05)

- (24) nik eman behar diot (2;05); baino ume txikiak ez (2;09); zuk ha(r)tu bat eta nik be(s)te bat bale? (2;10); be(s)te txaku(rr)ak (3;02); hemen eramaten du kamioi honenek (3;06)

Haurrengan ia corpus osoan zehar azaltzen dira, ordea, kasu honi dagokion markarik gabeko ekoizpenak (25).

- (25) Piu (=Peruk) ebili (=ibili) (2;05); ama(k) hemen da(u)ka (2;07); nile (=nire) Ma(r)ga laka (=dauka) miña (3;03)

3. taula: ergatiboak, ergatibo-markaren kokagunea eta datiboak

adina	ergatiboak	bokal aurea	kontsonte aurea	azkena	datiboak
2;05;12	5	2	1	2	
2;05;26	3	-	-	3	
2;07;09	4	1	2	1	1
2;07;30	8	1	2	5	-
2;09;05	7	3	-	4	-
2;09;22	10	3	3	4	4
2;10;11	7	3	1	3	4
2;10;22	8	3	2	3	6
2;11;25	17	10	2	5	1
3;00;17	7	5	-	2	-
3;01;24	7	4	-	3	2
3;02;14	13	5	4	4	2
3;03;07	13	9	-	4	-
3;04;04	15	9	1	5	4
3;05;09	10	7	1	2	1
3;06;17	28	16	4	8	-
	162	81	23	58	25
		%50	%14	% 36	

Kasua ezagutu arren, batzuetan erabili eta besteetan ez erabiltzearen arrazoietako bat, gure ustez, arazo fonologikoetan egon daiteke. Hau bera ikusi dute Ezeizabarrena-Larrañagak (1996), Larrañagak (1994) eta Zubirik (1997). Ergatiboaren kasu-marka, hitzaren amaieran doan herskari belarea dugu eta badirudi haur honek zailtasunak dituela, ez bakarrik fonema honekin, baita hitzaren azkenean doan herskari horzkariarekin ere. Horrela bada, corpus honetan azaltzen diren 162 ergatiboetatik 81 (%50) bokal aurreko posizioan ekoizten ditu, 58 (%36) ekoizpenaren azkenean azaltzen dira eta 23 (%14) kontsonante aurreko posizioan (4. taula). Azken posizio hau da, beraz, gutxien azaltzen dena eta ahoskatzen zailena.

Orain arte aipatutakoa laburbilduz, lehen ergatiboak 2;05 adinaz ekoizten ditu, eta kasu honen emankortasunaz hasieratik hitz egin daiteke, corpus osoan zehar azaltzen denez.

Honek ez du esan nahi kasu hau behar den guztietan erabiltzen duenik, ekoizpen ugari baitago kasu-markarik gabe, konkretuki %25. Nahiz aipatutako arazo fonetikoak ez duten ergatibo marka-ezaren arazo guztia argitzen -ergatibo kasua ekoitzi aurretik, kasu honek duen marka bera ekoitzi baitu haurrak testuinguru ez-ergatiboetan- haurrak fonema honen ahoskeran arazoak dituela ikusi dugu, batez ere kontsonante aurrean.

Datiboa edo NORI kasua (-i)

Aditzarekin komunztadura duten kasuen artean, partitibo kasua alde batera utziz, datibo kasua da beranduen agertzen dena eta kopuru aldetik urriena ere bai. Hau bera ikusi zuen Barrerañak (1993).

Datiboari dagokion kasu-markarekin azaltzen den lehen ekoizpena -hau da, lehen zehar objektua- 2;07 adinaz agertzen da (26) (5. taula). Bi hilabete lehenago, ordea, aditzean kasu honi dagokion komunztadura azaltzen da, datibotasuna adieraziz (27).

(26) gizonari (2;07)

(27) nik eman behar diot (2;05)

Ergatibo kasua aztertu dugunean ere antzeko zerbait ikusi dugu, hau da, ergatibotasuna aditzean ergatiboaren kasu-marka bera baino hilabete lehenago azaldu dela.

Baina bi ekoizpen hauek nahiko isolaturik azaltzen dira, kontuan edukiz lau hilabetetan zehar hauek direla kasu honekin zerikusia duten ekoizpen bakarrik. Horrela, datibo kasuan azaltzen diren ondorengo ekoizpenak 2;09 adinaz ekoizten ditu gure haurrak, oraingoan aditz jokatuarekin batera baina ez kasu honi aditzean dagokion komunztadurarekin (28).

(28) beti etu (=ez du) hartzen zuli (=zuri); etu (=ez du) u(z)ten Eneko(k) zuli (=zuri) (2;09)

Hiru urte eta erdi bitarteko corpus osoan zehar datibo kasuaren marka dutela azaltzen diren ekoizpen gehienak, edo aditz jokatu gabekoak dira (29) edo aditzarekiko komunztadura ez du ondo egiten haurrak (30).

(29) gosaliari (=gosariari) ez; o(s)tiko bat holi (=horri); ez d(e)itu Lideli (=Lideri) (2;10); zuri dinerua eta niri dinerua (3;04); lagundu niri (3;05)

(30) ikusi lugu (=dugu) aita telebi(s)tan, esan du (=diot) abu (=agur) aitali abu (=aitari agur); kenduko det (=diot) Itziarri (2;10)

Datibo kasua eta ondo lortutako aditzarekiko komunztadura ondorengo bi ekoizpenetan besterik ez da azaltzen (31).

(31) ez, niri ez zait gustatzen ezer (2;10); ematen didazu niri? (3;04)

Horrela bada, datibo kasuari dagokion kasu-marka eta aditzarekiko komunztadura ekoizpen berean azaltzen badira, ekoizpena bitan bakarrik gertatzen da gramatikala. Baina datiboari dagokion kasu-marka, hau da, zehar objektua azaltzen ez bada, aditzarekiko komunztadura, hiru urtetik aurrera, ia beti ondo egiten du (32).

(32) pletatu (=prestatu) dizut zure laranja ula (=ura) (3;00) berandu egin zaigu (3;02); elakutsiko (=erakutsiko) dizut grua haundia (3;03); e(g)ingo diot hola; nik utziko dizut hau; atera zait (3;06)

Hortaz, haur honek ez dauka arazorik edo kasu-marka edo aditzarekiko komunztadura ekoizten dituenean. Badirudi, ordea, zailtasunak dituela aldi berean datiboari dagokion morfema eta aditzarekiko komunztadura ekoizten dituenean, kasu hauetan komunztadura gaizki egiten baitu gehienetan. Esan genezake haurrak erredundantetzat jotzen duela bi prozedurak batera azaltzea eta nahikoa iruditzen zaiola bietako batez arduratzea.

Horrela bada, kasu honen lehen ekoizpena 2;07 adinean azaltzen da, nahiz eta hurrengo ekoizpenak bi hilabete eta erdi beranduagokoak izan, hau da, 2;09 adinekoak. Hemendik aurrera, kasu hau emankortasunez ekoizten duela esan dezakegu. Bestalde, datiboarekiko komunztadura erakusten duen aditz jokatu, lehen datiboa bera baino bi hilabete lehenago azaltzen da.

Aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuak

Gorago aipatu dugun legez, aztertzen ari garen haurraren hasierako corpusean hitz bat edo biz osatutako ekoizpenak azaltzen dira. Esapide hauetako asko *haur hizkera* bezala ezagun dira eta beste zenbait, aldiz, onomatopeiak dira. Bestalde, ez dugu aurkitzen inolako morfologiarik garai honetako hizketan, kasu-markak ere ez dira azaltzen hortaz.

Inesiboa (NON)

Azterketa hasi eta hiru hilabete beranduago, hau da, 2;02 adinean, azaltzen da haur honengan lehen kasu-marka, inesiboa edo NON kasuari dagokion *-n* marka hain zuzen (33).

(33) g(r)ua (gar)ajea (2;02); hau atzean alo (2;04); gasolina baluan (=barruan) dago (2;07)

Hasierako ekoizpenetan lekua adierazten duten erlazioak azaldu badira ere, jarduera, denbora, mugagabea eta plurala ere adierazten ditu kasu honen bidez (34-37).

(34) toritu (=txoritxo) bat hegan (2;11); ikasten ari da (3;04)

(35) eta mendian egon ziren egun guztian (3;06)

(36) hau ere bai elosi (=erosi) dut Elizondon (3;01)

(37) oinetan bai (3;01)

Ondoren, beste kasuak azaltzen hasten dira haurren ekoizpenetan, eta 3;00 urte bitartean ondorengo kasuak ekoizten ditu:

Jabego genitiboa (NOREN)

Kasu hau, inesiboa azaldu eta hilabetera azaltzen da lehen aldiz (38). Pluralari dagokionez, lehena 2;05 adinaz ekoizten badu ere, hiru urte bete ondoren azaltzen dira beste pluralak (39).

(38) nire tutua (=kotxea) (2;03); peru(re)na; bia (=begira) (2;04); hau nilea, nilea (=nirea) (2;05); konpondu dut nire kokiki (=santxeski); olao (=hor dago) amatxi(re)n etxea (2;07)

(39) Piunak (=Perurenak) (2;05); nire jolasak ez dira apurtu behar (3;06)

Ablatiboa (NONDIK)

Kasu honen lehen agerpena 2;04 adinaz ikusten da (40). Leku izenekin mugagabea ere behin ekoizten du (41).

(40) eta sa(r)tu atzetik (2;04); kendu ho(r)tik (2;09); u(r)ten hemendik, uretatik (2;10)

(41) Bilbotik (3;01)

Adlatiboa (NORA)

Ablatiboa azaltzen den adin berean ekoizten du lehen aldiz kasu hau gure haurrak (42). Mugagabeak ere azaltzen dira (43).

(42) joan da etxe(r)a (2;04); hondaltzala (=hondartzara) (2;07); joaten da ikastolala (=ikastolara) (2;09)

(43) bar(r)aketara (2;10); eroriko xx uretara, beitu uretara (3;05)

Hiru urte bitartean bizigabeekin bakarrik azaldu bada kasu-marka hau, orain bizidunekin eta mugagabean ekoizten du haurrak (44).

(44) kotxeak Migelengana joaten dira (3;04)

Destinatiboa (NORENTZAT)

Hilabete beranduago azaltzen da kasu honi dagokion lehen ekoizpena (45).

- (45) Píueentzat (= Perurentzat) (2;05); al(d)apan oso zaila da niretzako (2;09)

Soziatiboa (NOREKIN)

Hasierako ekoizpenek instrumentaltasuna adierazten dute. Kasu hau aztertzerakoan esan beharra dago gaur egun gehienetan instrumental kasuaren ordeztarabiltzen dela, batez ere sartaldeko euskalkietan². Horrela tresna adierazterakoan, haur honek, inguruko beste edozeinek bezala, soziatibo kasua erabiltzen du instrumentala erabili ordeztarabiltzen (46). Kidetasuna adieraziz ere ekoizten du kasu hau (47). Pluralak, gutxi badira ere, azaldu dira haur honen corpusean (48).

- (46) nekin? (=honekin?) (2;07); bai, eta hau jartzen du patinina (=plastilina) honekin (2;09)
- (47) etunai jua Magalekin (=ez dut nahi joan Margarekin) (2;11); gurekin (3;02)
- (48) holan tlonkoekin (=tronkoekin) (3;03)

Muga adlatiboa (NORAINO)

Kasu honi dagozkion hiru ekoizpen besterik ez dugu aurkitu haurraren corpusean (49).

- (49) bai, itxasolaño (=itxasoraino) (2;07); olalano (=horreraino) (3;00); eskapo intzuen (=egin zuen) mendi ho(rre)raño (3;06)

Hiru urte bete ondoren, beste bi kasu azaltzen dira:

Leku Genitiboa (NONGO)

Nahiz eta azterketa bukatu arteko corpusean, hau da, 3;06 bitartean kasu hau gehiago ez azaldu, badiirudi jabekuntzaren hasieraz hitz egin daitekeela.

- (50) ez, hemengoa (3;01); bai, zirkokoa; hau da tlatloreakoa (=traktorekoa); nile (=nire) Ma(r)ga(k) laka (=dauka) t(r)ipako mina (3;03); lu(r)peko tlanean (=trenean)(3;04)

Instrumentala (ZEREZ)

Kasu honi dagokion ekoizpen bakarra dugu (51).

- (51) kotxez (3;02)

Soziatibo kasuaren azterketa egiterakoan esan dugun bezala, instrumentala erabili ordeztarabiltzen da. Hortaz ez da harritzekoa hizkuntzaz jabetzen ari den haurrak ere kasu hau ez erabiltzea, edo oso gutxitan egitea.

Orain arteko laburtuz, aditzarekin komunztadurarik ez duten ondorengo kasuak ekoiztu ditu gure haurrak (4. taula): NON, NOREN, NONDIK, NORA, NORENTZAT, NOREKIN, NORAINO, NONGO eta ZEREZ.

² Corpusean zehar kaurraren hizketa-lagunek ere soziatibo kasua erabiltzen dute instrumentala erabili ordeztarabiltzen.

4. taula: aditzarekin komuntzadurarik ez duten kasuak

ADINA	NON	NOREN	NONDIK	NORA	NORENTZAT	NOREKIN	NORAINO	NONGO	ZEREZ
2;02;14	2								
2;02;25	1								
2;03;12	1								
2;03;25	1	1							
2;04;15	2	4	2	1					
2;05;00	2	1							
2;05;12		5 (1)	1		1				
2;05;26	1	2							
2;07;09	2	5				1 (?)			
2;07;30	4	9		3			1		
2;09;05	11	5		3		3			
2;09;22	5		5	1	2	3			
2;10;11	9	3	3	3	1	5			
2;10;22	1	2	3	3		1			
2;11;25	9	8	2	3	1	2			
3;00;17	2	11 (1)	2		4	5	1		
3;01;24	6 (1)	2 (2)	4	3		3		2	
3;02;14	4	4 (1)		2	2	4(1)			1
3;03;07	6 (1)	10	1			1 (1)		5	
3;04;04	3	18 (1)	2	6	1	8		1	
3;05;09	3	1 (1)	3	5					
3;06;17	11	15 (1)	4	5	2	3	1		
	86	106	32	38	14	39	3	8	1

(?) Zeinu hau, ekoizpenak formula gisara ikasitakoak direnean azaltzen da. Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira.

Emankortasunari dagokionez, NOREN kasua da, dudarik gabe, emankorra. Ondoren, eta presentzia nabarian NON kasua dator. Bi hauek alde batera utziz, beste kasuen emankortasuna asko jaisten da.

Azterketan zehar, bestalde, ez ditugu postposizioak aipatu, hauen azalpena oso urria delako, eta *bezala* eta *bila* besterik ez ditugulako aurkitu aztertutako haurren corpusean zehar.

Kasuek dituzten zenbait adiera ezberdin ere ikasi ditu haurrak. Adiera ezberdin hauen artean, *leku*a da lehen adierazten dena eta ugariena. Bestalde, jarduera, jabegoa, helburua, tresna eta kideasuna ere adierazten ditu kasu hauen bidez. Azkenik *denbora* adiera ere azaltzen da.

Bestalde euskal deklinabideak kasu bakoitzean dituen hiru atzizkiak (mugagabea, mugatu singularra, eta mugatu plurala) ere azaldu dira zenbait kasutan. Leku-denbora kasuetan bizidunekin eta bizigabeekin erabiltzen diren atzizkiak ere azaldu ditu haurrak zenbaitetan.

Haur honen corpusean, kasu markarik gabeko ekoizpen batzuk aurkitu ditugu, baina gutxi dira, eta batez ere hiru urte bete aurretik ekoizten ditu.

4.2. Gaztelaniari dagozkion emaitzak

Nominatibo kasua edo subjektua

Kasu honen azterketa barruan, izen-sintagmaren jabekuntza bilakabidea ere ikusi dugu, eta honekin hasiko gara. Hasierako transkribapenetan ez dugu determinatzailearik aurkitu. Haurrak ekoizten dituen hitz gehienak (substantiboak, adjektiboak) bakarrik azaltzen dira (52). Hasierako transkribapenetan hitz gehienak horrela ekoizten baditu ere, hitz bakar batzuk fonetikoki artikuluen itxura duen bokal batekin azaltzen dira (53).

(52) nina (=niña); tuta (=balón); tote (=coche); udi (=Jurgi) (1;11); mi(r)a lalo (=árbol) (2;00)

(53) e tutu (=coche); u ñiño; a pupa (=1;11); a tuta (=pelota) (2;00); a pape; e kital (=cristal) (2;01)

Horrela bada, *pseudo-artikulu* (Idiazabal, 1991) edo *aurredeterminatzaile* (Barreña, 1997) izenez ezagutzen diren elementu horien ekoizpenak badirudi 2;01 adinetik aurrera behar bezala doazela. Beste zenbait ikertzailek ere gauza bera ikusi izan du, hauen artean, gaztelaniaz Hernandez Pinak (1984) eta López Ornat (1994). Katalaneraz, berriz, izen, adjektibo, izenordain eta aditzen aurrean ere azaltzen dira (Capdevilla eta Serra, 1995). Ingelesez ere *schwa* izendatzen duten (Dore eta besteak, 1976) a bokala agertzen dela diote; Ramer-ek, (1976) berriz, sintagma nominalen aurrean ez ezik, aditzen aurrean ere azaltzen dela dio.

Artikuluaren aitzindari diren elementu hauek alde batera utziz, lehen ekoizten duen determinatzailea artikulu mugagabea da (54). Ondoren, artikulu mugatua ekoizten du (55).

(54) un tota (=pelota?); el t(r)en (1;11)

(55) el lalo (=árbol) (2;00)

Artikulu mugagabea 2;02 adinean berragertzen da, eta hemendik aurrera bi artikulua azalduz joango dira behar den gehienetan, generoaren bereizketa ere azalduz (56).

(56) un tsotse (=coche); un tren; el tsotse (=coche); (2;02); mia un coche; la vaca aquí (2;03)

Beste determinatzaileak ere ekoizten ditu haurrak: mugatzaile-erakusleak (57a), zehaztugabeak (57b), posesiboak (57c), zenbatzaile zehaztuak (57d) eta zenbatzaile zehaztugabeak (57e).

(57a) eze niño (2;01); esa paca (=vaca) no (2;03)

(57b) mi(r)a ot(r)o ajajan (=naranja?) (2;02); pongo aqui ot(r)o (2;03)

(57c) dónde está mi pi (=?) (2;07); en mi t(r)a(c)to(r); se ha ido aita, mi padre (2;09)

(57d) doh mo(s)cah (2;07); aqui falta uno (2;10); mira, se ha caído uno (3;04)

(57e) no te hago nada (2;09); me voy comiendo todas (3;02)

Izen-sintagmaren bilakabidea azaldu ondoren, subjektu nominatiboen agerrera haur honengan nola ematen den ikusiko dugu jarraian. Lehen azaltzen diren subjektuak erakusleak dira, eta ondorengo hiru hilabeteetan, ez du beste subjektu motarik ekoizten (58).

(58) esa (=eso) e(s) caché (=coche); e(s)te e(s) Peru (2;00); ese (=esa) e(s) Ameyna (=Amaya) (2;02)

Orain arte, bada, aditz kopulatiboekin bakarrik azaldu dira subjektuak eta denak erakusle batean gauzatzen dira gainera. Formula gisara ikasitakoak diren susmoa sortarazten digu honnek. Baina 2;03 adinaz aditz ez-kopulatibo batekin ekoitzi du lehen aldiz subjektu erakuslea (59) (5. taula). Horrela bada, 2;03 bitartean erakusleak bakarrik azaltzen dira subjektu funtzioa betetzen. Hurrengo hilabetetik ordea, erakusleak ez diren subjektuak azaltzen hasten dira (60).

5. taula: nominatiboak, klitiko akusatiboak eta akusatiboak

adina	nominatiboak		klitiko akusatiboak						akusatiboak
	izenordainak		me	te	lo	los	la	las	
2;00;20		1							
2;01;03		1							
2;02;14		2							
2;02;26		-							
2;03;12		2							
2;03;25	2	-	-	-	-	-	-	-	1
2;04;15	1	1	-	-	-	-	-	-	2
2;05;12	-	3	-	1	-	-	-	-	-
2;05;27	3	7	-	-	-	-	-	-	4
2;07;14	4	1	-	-	-	-	-	-	3
2;07;30	1	6	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	8	-	-	-	-	-	-	-	-
2;09;22	3	7	2	1	1	-	-	-	7
2;10;06	-	5	-	-	3	-	-	-	3
2;10;24	2	6	-	-	-	-	-	-	2
2;11;21	2	6	-	-	-	-	-	-	5
3;01;03	8	5	-	-	4	-	-	-	8
3;01;19	5	8	-	-	2	-	-	-	5
3;01;24	2	-	-	-	-	-	-	-	-
3;02;14	7	4	-	-	-	-	-	-	5
3;03;07	7	9	2	2	3	-	1	-	4
3;03;22	1	5	-	-	1	-	-	-	2
3;04;26	7	15	-	4	1	1	-	-	11
3;05;09	1	12	-	-	1	-	-	-	9
3;05;23	1	10	-	-	1	-	-	1	7
3;06;17	-	18	-	3	1	-	-	-	7
3;06;29	3	27	1	1	4	-	3	-	11
guztira	68	159	5	12	22	1	4	1	69
		%11	%27	%51	%51	%11	%11		

(59) asi baja esto; ese baja (2;03)

(60) Piu (=Peru) no бага (= ?baja, llega?) (2;04); mira, ha pasau (=pasado) un tutu (=coche) (2;05)

Gaztelaniazko nominatibo kasua gordetzen duten lehen izenordainak 2;05 adinari dagoen transkribapenean ekoizten ditu lehen aldiz, aditz jokatuaz azaltzen den perpaus batean (61) (5. taula). Hemendik aurrera, subjektu nominatiboa, bai izenordaina batean gauzatua, bai beste era bateko izen-sintagmetan gauzatua ikus daiteke haurren corpusean zehar (62).

(61) miral, ése ha(h)³ pintau tú; ése ha(s) quinta(?) (=pintado) tú con dembel (=el verde) ese (2;05)

(62) ¿(a) quien ves tú xxx ? (2;07); se ha ido aita, mi pa(dr)e (2;09)

Nominatibo kasuaren jabekuntza bilakabidea laburtuz, artikularen lehen azalpenak alde batera utziz, 2;02 adinetik aurrera esan daiteke haurrak ekoizten dituela normaltasunez bi artikulak. Bestalde, azaltzen den lehen subjektua, erakusle batean gauzatzen da 2;00 adinean. Hiru hilabetez ekoiztiko erakusleek ordea, ez dugu uste subjektu funtziorik betetzen dutenik, deiktikoak direla baizik. Bestalde, lehen izen-sintagma subjektu funtzioan, 2;03 adinean kokatu dugu, eta lehen izenordain nominatiboa, hau da, subjektu funtzioa betetzen duena, 2;05 adinaz ekoizten du haurrak. Horrela bada, subjektu funtzioaren jabekuntza-bilakabidea haur honengan, 2;03 adinean hasten da izen-sintagma subjektuen bidez, izenordain nominatiboak beranduago azalduz.

Akusatibo kasua edo objektua

Gaztelaniaz akusatibo kasua erakusten duten izenordain klitikoak aztertuko ditugu hasiera batean, eta ondoren objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak.

Klitiko akusatibo hauek nahiko berandu hasten dira azaltzen aztergai dugun haurraren gan. Lehena 2;05 adinaz ekoizten du (63) (5. taula). Ekoizpena, ordea, nahiko isolaturik dago, kontuan izanik ondoren ekoizten dituenak lau hilabete beranduago hasten direla azaltzen (64).

(63) no te veo (2;05)

(64) a ti no te llevo; y pontelo ¿eh?; Itziar, ¿me cojes? (2;09); lo que quieras (2;10)

Horrela bada, hiru urte bete aurretik oso klitiko gutxi ekoizti ditu, baina jadanik hiru pertsonak azaldu dira. Akusatibo hauen hirugarren pertsonak generoa onartzen du, baina forma hauek gutxitan azaltzen dira haur honengan, % 11, eta azterketaren azken aldean gainera (65).

(65) pon(me)la⁴ a mi (3;03); es la que come aquí (3;06)

Akusatibo hauen kokagunea, hitzaren aurrean (proklitikoak) edo atzean (enklitikoak) egon daiteke⁵ (66). Bi eratakoak aurkitu ditugu, baina ugarienak, dudarik gabe, proklitikoak dira, %87 baitira.

³ Corpusean zehar ikus daitekeen moduan, haurrak zenbait fonema eta kokagunerekin zailtasunak ditu, batez ere hasieran.

⁴ Ekoizpen honetan datiboko klitikoa falta da. Datiboari dagokion azterketan adieraziko dugu.

⁵ Aztertzen ari garen klitikoak bi kokagunetan azal daitezke. Alde batetik proklitikoak dauzkagu, hau da, ondoren doan hitzaren menpe daudenak, azentuari dagokionez. Bestalde *enklitikoak* ditugu, hauek berriz azentu nagusia darman hitzaren ondoren azatzen dira.

(66) mañana te invito; dámelo (3;06)

Pluralari dagokionez, bi klitiko besterik ez ditugu aurkitu corpus osoan zehar, bata masculinoa eta bestea femeninoa. Biak hiru urte bete ondoren ekoizten ditu (67).

(67) sí, los metemos (3;04); no te las dejo (3;05)

Izenordain klitikoekin helduok egiten ditugun errakuntza berberak ikus daitezke haur honengan ere. Alde batetik izenordain hauek gabe azaltzen diren ekoizpenak ugariak dira, %36, hain zuzen, denak hirugarren pertsonari dagozkionak. Bestalde, *leismoa* gure lurraldean helduengana hedatua dagoen ohitura da eta haur honek ere datibo kasuari dagokion klitikoa erabiltzen du zenbaitetan, akusatiboari dagokiona erabili beharrean, eta corpus osoaren arabera, %9ra iristen dira halakoak (68).

(68) a Carmen, a buscarle (2;11)

Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten lehen izen-sintagmak 2;03 adinetik aurrera ekoizten ditu gure haurrak (69) (5. taula). Hilabete eta erdi beranduago hasten da haurra objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten bi elementuz osatutako izen-sintagmak ekoizten (70).

(69) pongo aqui ot(r)o (2;03); ahora (a) coger esa; ahora a mete(r) esa (2;04)

(70) aqui pi(n)timos un tutu (=coche) (2;05); a que te loy (=doy) una to(r)ta g(r)ande (3;01)

Pluralari dagokionez, 2;09 adinetik aurrera hasten da haurra ekoizten objektu pluralak (71).

(71) comiento patatas (2;09); que no se dicen cosas feas (3;01); tiene pilas (3;02)

Azterketan zehar ikusi dugun bezala, ekoizpen gehienetan izen-sintagma objektua dagoen egongunean ekoizten du aztertutako haurrak, hau da, aditzaren ondoren. Arauari dagokion hitz-ordena aldatua erakusten dutenak, %8 besterik ez dira, eta hauetako batzuk, gainera, loturik daude, gure iritzi, mintzagaiaren arazoarekin.

Objektu zuzenaren jabekuntza-bilakabidea aztertu ondoren, lehen objektu zuzena 2;03 adinean koka genezake, eta lehen klitiko akusatiboaz berriz, 2;05 adinean.

Datibo kasua edo zehar objektua

Atal honetan, datibo klitiko edo atonoak, datibo tonikoak eta zehar osagarriaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak aztertu ditugu. Lehen azaltzen den datiboa, haurrak 2;02 adina duenean, zehar osagarriaren funtzioa betetzen duen izen-sintagma batean gauzatzen da (72) (6. taula). Bi hilabete beranduago, 2;04 adinean, hain zuzen, ekoizten du lehen aldiz datibo toniko bat (73).

(72) y a ltziar (2;02)

(73) un nene ¿a tí? (2;04)

Aipatu ditugun hiru atal hauetatik, haurrak azken ekoizten duena klitikoa edo atonoa da. (6. taula). Berandu samar azaltzen da, akusatiboko lehen klitikoa azaldu zen adin berean hain zuzen (74). Hurrengo ekoizpena bi hilabete beranduago azaltzen da. Ikus daitekeen moduan, bi datiboak batzen dira ekoizpen honetan, *me* atonoa eta *mi* tonikoa (75). Ondorengo bi hilabeteetan ez du datiborik ekoizten haurrak. Baina hemendik aurrera maizago azaltzen dira, nahiz datiboaren emankortasuna urria izan beste kasuen aurrean (76).

- (74) dime(lo)⁶ (2;05)
 (75) a mi si ma (=me) gustan (2;07)

6. taula: datiboak, datibo tonikoak eta datibo klitikoak

adina	datiboak	datibo tonikoak		datibo klitikoak		
		1p (a mi)	2p (a ti)	1p (me)	2p (te)	3p (le/se)
2;02;26	1					
2;03;12	-					
2;03;25	-					
2;04;15	-	-	1			
2;05;12	-	-	-	1	-	-
2;05;27	-	-	-	-	-	-
2;07;14	-	1	-	1	-	-
2;07;30	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	-	-	-	-
2;09;22	-	-	1	2	5	-
2;10;06	-	-	-	1	-	-
2;10;24	-	2	-	1	-	-
2;11;21	-	-	1	1	-	-
3;01;03	2	2	1	1	-	-
3;01;19	-	-	-	-	1	-
3;01;24	-	-	-	-	-	-
3;02;14	-	1	-	-	-	-
3;03;07	-	3	-	-	-	-
3;03;22	-	-	-	-	1	-
3;04;26	2	-	1	-	4	1
3;05;09	1	-	-	1	2	2
3;05;23	-	-	-	-	4	1
3;06;17	-	4	1	2	7	1
3;06;29	2	1	-	5	9	3
	8	14	6	16	33	8
		% 70	% 30	% 28	% 58	% 14

- (76) te doy; (p)o(r) qué no me dejas? (2;09); nosotros pintamos a mi aita (3;05)

Klitiko akusatiboetan gertatzen den bezala, hemen ere ugarietak (% 88) proklitikoak dira, hau da, ondoren doan hitzaren menpekoak, azentuari dagokionez. Numeroari dagokionez, ez dugu klitiko plural bakar bat ere aurkitu corpus osoan zehar, hau da, denak singularrean ekoitzi ditu.

⁶ Ekoizpen honetan, klitiko akusatiboa falta da. Ez da, ordea, harrizkoa haurrak horrela ekoiztea, helduen hizkuntzan ere gehienetan falta baita.

Zehar objektuaren funtzioa betetzen duen lehen datiboa, hortaz, 2;02 adinean ekoitzi du gure haurrak. Bi hilabete beranduago, hau da, 2;04 adinean ekoizten du lehen datibo tonikoa eta beste hilabete beranduago berriz, 2;05 adinean, datibo atonoa bat. Gehien ekoizten duena, bestalde, datibo klitiko edo atonoa da.

Preposizioak

Bi urte bete aurretik azaltzen diren preposizioak, laguntzen duten hitzarekin batera ikasitakoak dira gure ustez. Bi urte bete ondoren hasten dira azaltzen benetako lehen preposizioak haur honen corpusean, eta hiru urte bete aurretik, jadanik sei preposizio ezagutzen ditu (7. taula): *de* (77), *para* (78), *a* (79), *con* (80), *por* (81), *en* (82), *hasta* (83) eta *sin* (84). Azken biak hiru urte bete ondoren agertzen zaizkigu.

7. taula: preposizioak

adina	de	para	a	por	con	en	hasta	sin
2;00;20	3	1	-					
2;01;03	1		-					
2;02;14	-	-	-					
2;02;26			2 +3(?)					
2;03;12			1(?)					
2;03;25	-	1(?)	-					
2;04;15			1					
2;05;12	1	-	1	1(?)				
2;05;27	1	1(?)	1(?)	3	2			
2;07;14	-	1	1	1	-	1		
2;07;30	-	-	-	1				
2;09;01	-	-	2	3	2	4		
2;09;22	-	1	-	8	1	1		
2;10;06	3	-	5	2	7	1		
2;10;24	4	-	-	-	3	3		
2;11;21	1	2	3	1	1			
3;01;03	3	2	1	7	5	1		
3;01;19	3	5	3	6	1	6		
3;01;24	3	1	-	2	-	1		
3;02;14	4	2	7	13	6	5		
3;03;07	2	3	6	-	2	1	1(?) + 1 + (1)	1
3;03;22	1	1	3	5	2	1	-	1 (1)
3;04;26	3 (1)	1	6	2	5	3		
3;05;09	5	2	7	3	1	3	1	
3;05;23	1	5 (1)	9	5	7	4		
3;06;17	2	-	13	4	2	6		
3;06;29	3	1	4	2	-	1		
	45	30	80	69	47	42	3	2

(?) zeinu hau, ekoizpena formula gisa ikasitakoa edo zalantzakoa denean azaltzen da. Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira.

- (77) es de uri (=Jurgi) (2;00); de peru (2;05); una goma de aquí, ya no anda (2;11)
- (78) pa(ra) uri (=jurgi) (2;00); pa(ra) subi(r) (2;03); palatras (=para atrás) (2;05); para magalit a (=Margarita) (2;09); y ahora para aaliba (=arriba); eso es para meter en la talad(ro) (3;01)
- (79) y a ltzi(ar); al lau (=lado) (2;02); ahora a mete(r) esa (2;04); a la (es)cuela (2;09); a dormir no (2;10); yo al baco (=baño) (2;11); y me voy a la blampa (=rampa) por aquí (3;01)
- (80) ¿con tomeno? (=tomate?) (2;05); con Ano:a (=Ainhoa); con e(l) Citroen (2;09); con Namaso (=Dámaso) y con Raquel (3;01)
- (81) se ha quido (=caído) por allí (2;05); por aquí (2;07); y por aqui se mete un señor (3;01); por el agua, por el aire (3;02); el coche va por la carretera (3;04)
- (82) en la pitina (=piscina) (2;07); en el Sioten (=Citroen) (2;09); aquella en la plaza (2;10); en el g(r)ande cabo (=quepo) (3;02); y due(r)me en la ambulancia (3;03)
- (83) poe (=pues) hasta ahora?; vale, hasta las ocho (3;03); y suben hasta ahí (3;05)
- (84) ahora sin pistola te he mue(r)to; sin guesos (=huesos) y con gueso (3;03)

Haur honen preposizioen jabekuntza-bilakabidea laburtuz, gorago aipatu dugun bezala, haur honen corpuseko lehen preposizioak, osorik ikasitako ekoizpenetan azaltzen dira gure ustez, preposizio beraren kontzientziarik eduki gabe. Bi urte betetzen dituenean, ordea, hasten da lehen preposizioak ekoizten, eta 3;03 adinean, zortzi erabiltzen ditu: *de*, *para*, *a*, *con*, *por*, *en*, *hasta*, *sin*. Preposizio hauek dira hain zuzen, besteak beste Gili Gaya (1974) eta Hernández Pinaren (1984) lanetan azaltzen direnak.

Preposizio hauen emankortasuna asko aldatzen da batzuetatik besteetara. Horrela, gehien ekoizten dituen preposizioak, *a* eta *por* diren bitartean, *hasta* eta *sin* preposizioak oso gutxitan ekoizten ditu haurrak (7. taula).

Euskarazko kasuen bidez azaltzen diren ia adiera berak adierazten ditu aztertutako haurrak gaztelaniazko preposizioen bidez, hau da, helburua, jabegoa, lekua, tresna, kideatasuna, modua eta denbora.

Kasuen atalean aipatu dugun moduan, hemen ere ez-egokitasun batzuk aurkitu ditugu, ekoizpen batzuetan beharrezkoa den preposizioa ez delako azaldu, edo alderantziz gertatu delako, hau da, behar ez denean preposizioa erabili delako. Hala ere, hau oso gutxitan gertatzen da, eta era honetako ekoizpen gehienak hiru urte bete aurrekoak dira. Gehienetan, testuinguruak preposizioen bat eskatzen duenean, haurra gai da dagokion preposizioa ekoizteko.

5. ONDORIOAK

1.- Subjektu funtzioaren azaltzea, adin beretsuan gertatu da aztertu dugun haurraren gain hitzuntzetan, euskarak markaketa ezberdina erakusten duten bi subjektu mota -absolutiboa eta ergatiboa- bereizten dituen arren. Subjektuaren gauzatzea bi hizkuntzetan arras ezberdina den arren, aztertutako haurra gai izan da bi sistemak bereizteko lehen subjektuak ekoizten hasten den une beretik. Hau da, haurra gai da subjektu kategoria ekoizteko, eta era batera edo bestera gauzatzeko, hitz egiten ari den hizkuntzaren arabera da, hau da, subjektuarekiko jabekuntza elebiduna lortu du.

2.- Objektu zuzenari dagokionez, emaitzak berdintsuak dira bi hizkuntzetan, eta bi hilabeteko epean euskarazko objektuak eta gaztelaniazkoak azaldu dira, klitikoak barne.

3.- Aztertutako haurrak gaztelaniaz ekoizten du lehen zehar objektua. Funtzio bera betetzen duten klitikoak, ordea, beranduago azaltzen dira. Azkenik euskarazko datiboa edo zehar objektua ekoizten du haurrak. Hizkuntza honetan, ordea, aditzak komuntzadura du absolutiboarekin, ergatiboarekin eta datiboarekin, hau da, subjektu eta objektu funtzioa betetzen duten kasuekin, eta datibo kasuari dagokion komuntzadura, kasua bera baino bi hilabete lehenago azaldu da aztertutako haurraren, hau da, gaztelaniazko klitikoak azaltzen diren adin berean.

4.- Aztertu ditugun datuen arabera, 2;07 adinetik aurrera, gure haurra gai da euskarazko eta gaztelaniazko objektuak gauzatzeko, eta gaztelaniazko klitiko akusatibo eta datiboak ekoizteko. Hauetako funtzio bakoitza, gainera, ondo erabiltzen du hizkuntza bakoitzean.

5.- Objektu zuzenen kokaguneari dagokionez, gaztelaniaz objektu hauek aditzaren ondoren azaltzen dira ia beti, hizkuntza honetako araua gordez. Euskararen ordenaren arabera, berriz, objektuak aditzaren aurrean azaldu behar badu ere, %21ean besterik ez da hau gertatzen. Bestalde, ordea, guztiz logikoa da, kontuan izanik euskararen oinarritzko ordena hori bada ere, nahikoa ordena librea duen hizkuntza dela, gaztelania baino libreagoa behintzat. Hemen ere ikus daiteke, haurra jabetu dela gaztelaniaz objektuak leku jakina gorde behar duen bitartean, euskaraz ez dela beharrezkoa.

6.- Euskarazko komuntzadurarik gabeko kasuak eta gaztelaniazko preposizio gehienak ekoizten ditu azterketa amaitu aurretik, hau da, 3;06 adinerako. Ikusi ahal izan dugun moduan, 3;03 adinerako, gure haurrak ekoizti dituen erlazioak bi hizkuntzetan erabili ditu. Erlazio hauek gauzatzeko modua ezberdina den arren bi hizkuntzetan -euskaraz postposizioak, gaztelaniaz preposizioak- ez dugu bi hizkuntzen arteko nahasketarik aurkitu, hizkuntza bakoitzari dagokion forma erabiltzen du testuinguruak eskatzen duen erlazioa adierazi ahal izateko

7.- Gure emaitzetan oinarrituz, bi hizkuntzetan aztertu ditugun egitura linguistikoaren jabe-kuntza elebiduna aldi berean eta nahasketarik gabe lor daitekeela uste dugu, baldin eta haurrari, ikasten ari den bi hizkuntzak era orekatu batean azaltzen bazaizkio, garrantzi berdina emanez eta *lagun bat, hizkuntza bat* araua gordez.

6. BIBLIOGRAFIA

- AKSU-KOÇ A. eta SLOBIN D. I. (1985), "The acquisition of Turkish", Slobin D.I. (argit.), *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume I: The data*, London, Lawrence Erlbaum Associates Publishers.
- BARREÑA, A. (1993), *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*, Doktorego Tesia, Gazteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BARREÑA A. (1997), "Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa izen-sintagmaren garapenean", *Fontes Linguae Vasconum* 75, 173-217.
- CAPDEVILLA M. eta SERRA M. (1995), "La adquisición de las categorías funcionales en niños catalanes", M. Pérez Pereira (argit.), *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, eusquera y gallego*, Universidad de Santiago de Compostela.
- DORE J., FRANKLIN M., MILLER T.T. eta RAMER A. (1976), "Transitional phenomena in early language acquisition", *Journal of Child Language* 3, 13-28.
- DROMI E. (1979), "More on the acquisition of locative prepositions: an analysis of Hebrew data", *Journal of Child Language* 6, 547-562.
- EZEIZABARRENA M. J. eta LARRAÑAGA M. P. (1996): "Ergativity: a problem for language acquisition", *Linguistics* 34, 995-991.
- GILI GAYA S. (1974), *Estudios de lenguaje infantil*, Barcelona.
- HERNÁNDEZ PINA F. (1979): "Etapas en la adquisición del lenguaje: Estudio de un caso concreto", *Infancia y Aprendizaje*.
- HERNANDEZ PINA F. (1984), *Teorías psicolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*, Madrid, Siglo XXI.
- IDIAZABAL I. (1991), "Evolución de la determinación nominal en un niño bilingüe vasco-hispanófono", "XII Conference on Spanish in the U.S. and Ist. International Conference of Spanish in Contact with other Languages", California, Los Angeles. University of Southern.
- JOHNSTON J. eta SLOBIN I. (1979), "The development of locative expressions in English, Italian, Serbo-Croatian and Turkish", *Journal of Child Language* 6, 529-545.
- LARRAÑAGA P. (1994), "La evolución del caso en euskera y castellano", J. Meisel (argit.), *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*, Madrid, Editorial Iberoamericana, 113-150.
- LÓPEZ ORNAT S. (1994), *La adquisición de la lengua española*, Madrid, Siglo XXI.
- RAMER A. (1976), "Syntactic styles in emergency language", *Journal of Child Language*, 3, 49-62.
- SLOBIN D. I. (1973), "Cognitives prerequisites for the development of grammar", Ch.A. Ferguson eta D. I. Slobin (argit.): *Studies of Language Development*, New York, Holt, Rinehart eta Winston, 175-208.
- SLOBIN I. (argit.) (1987), *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume I: The data. Volume II: Theoretical Issues. Volume III*. London, Lawrence Erlbaum Associates Publishers.
- ZUBIRI J. J. (1997), *Izen Sintagmaren determinazioaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskal elebakarren jarraipena)*, Doktorego Tesia, Gazteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea.